



Joanes eta Xabat Illarregi, beren herrian, Leitzan. Juan Carlos RUIZ | FOKU

infraganti JOANES ETA XABAT ILLARREGI

Miel Mari Elozegi «Luze», Ander Fuentes «Itturri», Diego Riaño... Leitzak bertsolari ugari eman ditu. Eta orain bertze kolpe bat egon da, justu Manuel Lasarteren eskulturaren parean bizi diren bi anaiekin. Herria bertsotara zaletzen ari da eta hori parte batean Joanes eta Xabat Illarregirengatik da. Gazteei plazak eman behar zaizkiela aldarrikatu dute.

Euskal Herriko 31. Eskolartekoaren Bat-bateko Txapelketaren finala jokatu da gaur Saran eta bertan kantatuko du 19 eta 17 urte dituzten Illarregi anaietako gaz-

teenak, Xabatek. Egun batzuk lehenago, selektibitatearen atarian eta saio batetik bueltan topatu dugu Leitzan. Joanes, aldiz, Irakasle Eskolan ari da Gasteizen eta kurtso bukaerarekin batera herrira itzuli da. Osinalde sariketa irabazi du Jo-

anesek; Eskolarteko Txapelketa, Xabatek. Baina Nafarroako Bertsolari Txapelketako finala saio eder bat eginez freskatzeak ekarri du gehiago azaltzen hastea. «Ez gehiegizkorik. Baina berrietasun horrek, bi gazte sartzeak eta bi anaia izateak gainera, hori ekarri du eta gustura gaude», adierazi dute.

Bertsoa da gustatzen zaiena. Kantatzea, hitzekin jolastea. «Betidanik izan gara bertsozaleak eta gustatzen zaigu bertso eskolara joan eta kideekin momentu onak pasatzea. Bertan talde eder bat daukagulako ere erakartzen gaitu bertsoak. Elkarren lagunak gara. Oholtzak ere erakartzen gaitu. Nik uste biei gustatzen zaigula jendaurrean aritzea», hasi da Xabat.

ERABAT BERTSOTAN BURUA

Bertsoa erabat buruan dabilkie. «Ikusten duzu edo entzuten duzu zerbait eta bertso molde-
ra nola ekarriko zenukeen pentsatzen duzu. ‘Kanta honetatik doinu polit bat atera daiteke’ bururatzen zaizu. Gutxitan entzuten duzun hitz bat entzun eta errima bezala erabiltzeko ona iruditzen zaizu».

Dutxan bertsoak kantatzen dituzte, edo txistuarekin doinu bat egiten dute. «Gure afiziorik handiena bertsoa da dudarik gabe eta gure etxeok ere nabaritzen dute».

Badute oroitzapena txikitatik bertso saioak entzutekoa edo etxean telebistan “Hitzetik hortzera” edo txapelketak ikustekoa. Gurasoek saioetara eraman izan dituzte. «Behin probatutakoan ez dugu inoiz utzi nazkatuta. Beti aktibo eduki dugun zerbait da».

Xabati gehienbat Joanesengandik heldu zaio afizioa. «Bera bi urte zaharragoa da eta bertso eskolan hasi zen. Eta anaia txikiok edukitzen dugun inbidia

horregatik agian, ongi pasatzen zuela ikusita, bere atzetik joan nintzen».

Amaren amona, Aresokoa, sukaldean bertsotan aritzen zela kontatu zien amak jada bertsotan ibiltzen zirenean.

LASAIK... EDO EZ HAINBERTZE

Kantuan itxura lasaia ematen dutela aipatzean hala erantzun du Joanesek: «Zazpi urterekin hasi nintzen bertsotan eta nahi edo nahi ez, herriko festetan bertso bat, ekitaldiren batean beste bat... Egiten joaten zara. Horregatik eman dezakezu itxura lasai hori».

«Egia da txikitatik ez diogula inoiz esan jendaurrean kantatzeari ezetz. Inoiz ez dugu esan ‘oraindik ez’. Horregatik, gaztetatik hasi ginen plazara ateratzen eta horrek lagundu digu gerora lasaitasuna eta gure bu-
ruarengan konfiantza edukitzen», erantsi du anaiak.

«Esan duzu oso itxura lasaia ematen dugula, baina hori disimulatzen badakigulako ere bada sarri –aitortu du Joanesek–. Xabatek gutxiago disimulatu behar izaten du, lasaiagoa delako, baina ni batzuetan bai egoten naiz urduriago edo tentsio gehiagorekin». Elkarriketan ere sumatzen dela erran diogu eta irriz hasi dira biak. Diote-nez, disimulatzen jakitea aunitz da. «Urduri baldin bazaude eta erakusten baduzu jendeak ez du arreta guztia bertsoan jartzen. Bera ere urduri jartzen da eta esaten du ‘ez du bukatu behar’. Nahiz eta barruan sufritzen egon, askotan pasatzen da hori, zuk baldin badakizu lasai itxura ematen, nahiz eta zu ez gustura gelditu bertsoarekin, publikoak esaten du ‘hori oso ona izan da’».

Zein erreferente dituzten jakin nahi dugu. «Bien izenean hitz egingo dut –erran du Xaba-



Beren afiziorik handiena bertsoa da eta beren etxeok ere nabaritzen dute. Txikitatik ez diote inoiz ezetz erran jendaurrean kantatzeari. Juan Carlos RUIZ | FOKU

tek anaiari irribarre konplizez begira-. Erreferente handi bat eduki dugu betidanik, gehienbat Joanesek eta gero nik: Xabier Silveira. Beste estilo bat delako, bere makarrismoagatik atentzioa ematen zigulako, baina gero, bertsoaz ulertzean, oso ona delako edo izan delako. Orain ez dakit badabilen».

Baina ez da bera bakarrik. Bertsolari piloa entzun dute. «Finaletan ibili diren guztiak betidanik entzun ditugu eta bakoitzetik gustatzen zitzaiguna hartu dugu».

NAFARROAKO FINALA

Jendeak erraten die antzeko egiten dutela bertsotan bi anaiak, baina ez zaie iruditzen batere. «Bakoitzak bere indargune eta ahulguneak dauzka; desberdinak».

Nafarroako Txapelketan sartuta, lehenbiziko finalean, «bertsoari begiratzuz, baina eguna gozatu» nahi zuen Xabatek. Eta lortu zuen. «Anaitasunara ailegatu ginenetik saioa bukatu arte gozatu nuen. Lagundu gintuzten. Nafarroan hori berezitasun bat da: denak oso lagunak gara».

Joanesi finalak eta txapelketak orokorrean balio izan dio ikusteko zein inportantea den buruak egiten duen lana. «Urduritasuna ez transmititzea. Bertso batekin ez bazara gustura gelditu jakitea

«Erreferente handi bat eduki dugu betidanik: Xabier Silveira. Bertsoa inprobisazioa da, eta, bertsoez ulertuz gero, nabaritzen da inprobisazioa dela bere bertso bakoitza»

«Biok Nafarroako Txapelketako finalera sartu izanak, biak gazteak, biak anaiak, ekarri digu saio gehiago ateratzea. Leku bat baino gehiagotatik bioi deitu digute kantatzeko»

gehiago gelditzen direla eta buelta ematea. Hor segitzea. Nik uste kasik bertsoa bezain inportantea dela buruari eusten jakitea, neurtzea. Jakitea

bertan egoten eta zu izaten zure buruaren jabe, zure nerbioen eta denaren jabe, zuk kudeatzea zuri gehien komeni zaizun modura eta ez beraiek zu maneiatzea».

Bertsoaz gain, faktore aunitz daudela agertu du Xabatek: «Ematen duzun itxura, hartzen dituzun doinuak eta kantatzeko modua, psikologikoki nola

eramaten duzun, presioa jartzen diozun edo kendu...».

Joanesek dioen bezala, bertsolariak bertso bat nola sortzen den ikusten du bere barnean: «Ideia bat bilatzetik bukaera bat osatzera. Bukaera horretatik errimak aurkitzera. Batzuetan ordenatuta ikusten duzu prozesua, bestetan ez hainbeste. Azkenean publikoari horren emaitza bakarrik ailegatzten zaio».

ZER ERAKUTSI ETA ZER GORDE

«Batzuetan umil itxura eman nahi duzu, lasai egon; bestetan harroago edo haziago egon nahi duzu... Horiek norberaren erabakiak dira. Beti ez da nahi bezala asmatzen kudeatzen. Badago jendea hori kudeatzen badakiena eta beste batzuk gardena dira: urduri daudenean

nabaritzen duzu, pozik daude-
nean ere bai... Pertsonaren ara-
bera da. Zuk erabakitzen duzu
zer erakutsi eta zer ezkutatu»,
adierazi du Joanesek.

Finalaren ondotik, «aldaketa
txiki bat» sumatu du Joanesek
plazetan. «Saio gehiago atera
zaizkigu agian, baina ez dut us-
te salto kuantitatibo handirik
dagoenik». Xabatek aldea naba-
ritu du, lehen ez zuelako kasik
saiorik eskolartekoez aparte.
Orain batzuk baditu. Horietako
batzuk anaiarekin, biei deitu
dietelako kantatzeko.

«Ongi daramagu. Oraindik ez
gara haserretu eta gehiago ba-
dira ez ditugu penaz hartuko».

IKASLE GEHIAGO BERTSO ESKOLAN

Xabatek bigarren urtea du ber-
tso irakasle bezala. «Iaz hasi
nintzen. Bi talde dauzkat, gutxi
gorabehera hogeit bat lagun. Le-
henago bertso eskolan talde bat
zegoen eta aurten jendea ani-
matu eta beste talde bat sortu
da. Oso pozik gaude. Segitzen
badute askoz hobeto. 11-12 urte-
koak ditut talde batean eta 13-
14koak bestean». Oraingoz ongi
pasatzera joaten dira. Batzuek
benetan gustuko dute.

Ahal dena erakusten saiatzen
da. Errespetua edukitzen ber-
tsolarien artean, zer kantatu
eta zer ez, filtro bat edukitzen.
«Baina askoz gehiago ere ez.
Bertsotan egiten baldin badaki-
te, gainerakoa denborarekin
ikasiko dute».

Miel Mari Elozegi Luze, Ander
Fuentes Itturri, Diego Riaño,
Manuel Lasarte bera... Egon dira
aurretik bertsolariak Leitzan.
«Ez da halako kontrastea izan:
bat-batean bertsolariak sortu
dira gure herrian», azaldu du
Xabatek.

«Baina beste kolpe bat egon
da», gaineratu du Joanesek.
«Leitzatik ehun lagun inguru
joan ziren finala ikustera. Due-



Anaia bakoitzak bere estiloa dauka, bere indargune eta ahulguneekin.

Juan Carlos RUIZ | FOKU

la bi urte, asko jota hamar joan-
go ginen. Aurretik ere nabari
zen gorakada. Aurreko urteko
festetako saioan zinea bete
egin zen. Leitza oso herrizalea

da eta bi herritar zerbait egiten
ari badira gustatzen zaio ikus-
tea. Guretzat pozgarria da. Saia-
tu ginen finalera joan ginen
guztiok argazki bat ateratzen.

Harmailaren parte handi bat
okupatu genuen».

Herri txikia izan arren, lei-
tzar aunitz nabarmendu da
kulturan eta kirolean. «Orain

bertsotan ateratzen ari gara.
Hemen inportanteena da he-
rria zaletzen ari dela bertso-
ra. Poza ematen du hori parte
batean guregatik izatea. Ho-
rrek segida balu, hobeto. Jen-
dea zaletzen bada eta bertsoak
toki bat hartzen badu, askoz
hobeki bertsoarentzat eta Lei-
tzarentzat».

Gazteak bertsotan ikusteak
gazteak erakartzen ditu. «In-
portantea da bertso eskolan da-
biltzan umeentzat ikustea poli-
ta dela, merezi duela. Horrek
motibazioa eman diezaike».

GAZTEENTZAKO PLAZAK

Azaldu dutenez, badaude pla-
zak, jaialdiak kasu, «beti bertso-
lari handiek» betetzen dituzte-
nak eta bertso bazkari edo
afariak dira plazak egiten has-
teko bide bat. «Egia da sarrera
lortzea garesti dagoela. Herriko
festetako saio handi baterako
gazteei deitzea gehiago kosta-
tzen da aurreiritzi bat daukagu-
lako ez garela ailegatuko maila-
ra. Normalean gehiago deitzen
gaituzte diru gutxi dagoen le-
kueetatik». Xabaten ustez, bada
lana Bertsozale Elkartetik egin
beharra gazteek plaza gehiago
edukitzeko. «Gazteek eta plaza
asko ez daukan jendeak».

Joanesek dio saiatzen direla
baina ez dela erraza asmatzea.
«Formatu desberdinak sortzen
dira, gazte sariketa gisakoak.
Batzuetan funtzionatzen dute,
besteetan ez».

Anaiantzat inportanteena
plazak sortu eta jendeari ema-
tea da. «Gazteari plazak eman
behar zaizkio. Astero bertso es-
kolan badabil baina gero plaza-
rik ez badauka frustratzera aile-
gatu litekeelako, eta uztera.
Bertso eskolan ikasten da ber-
tsoa egiten, eta, plazan, bertso-
lari izaten». •

Maidar Iantzi Goienetxe